

Larrazabal eta Beckett

Vencenneseko Unibertsitate Esperimentalean genbiltzan gu, eta Larrazabal Nanterren, 68ko maiatzaren kedar-usainak desagertuta dagoeneko eta 'pavé'ak beren lekuan. Moskuk bere xarma guztia galdua zuen eta Maoren utopiak liluraturik zeuzkan gazteak, eta izen handiko intelektual batzuk ere bai, Michel Bethelhein ekonomialariak, esate baterako, Txinara joan-etorria egin ondoren, han ikusitako mirariak kontatzen baitzituen goraki. Gurean, urte batzuk geroago, Ruiz Balerdi margolariak berak ere bidaia bat egin zuen. Maoista taldeak amebak bezala ugaltzen ziren, tarteka bitan banatuz. Ipar Euskal Herrian bertan ere, Krutwigek Mao goraiatzaren hitzetik hortzera, beste jeneral eta estrategia handi batzuen artean, noski, eta ezkontzen hain zailak zitzaizkigun 'liberazio nazionala eta soziala' lotzeko zirriztu bat ikusten hasita geunden 'kontraesan nagusia'ren teoriari esker. Paperean, bederen. Eta urruti samar zegoen iraultza eredu hari esker (hain urruti ere, kuantu!), abertzaleok marxista izan gintezkeen edo marxistok abertzale, segun eta bat nondik zetorren.

Garaiko talde maoista ugarien artean entzutetsuena Gauche Proletarienne zen, Pierre Victor (bere benetako deitura Benny Lévy zen) izeneko batek gidatzen zuena. Bernard-Henri Levyk Sartreri eskaini zion hagiografia potoloan kontatzen duenez, sedukzio gaitasun ikusgarriak zituen, Sartre bera ere liluratzerraino. Ecole Normal Supérieur famatuan bizi zen, gela batean sartuta, ia-ia atara gabe, gure Althusser miretsia bezalaxe, bidenabar esateko, nahiz eta honek egonaldi luzeak egiten zituen egoitza psikiatrikoetan. Legendak zioenez, gela horretatik atara gabe erabakitzen zituen, xake partida batean bezala, bere militanteen gorabehera guztiak, baita zertzelada pertsonalak ere. Ziotenez, garaiko liburu guztiak irakurrita zituen, kultura zen, sutsua eta enigmatikoa.

Jesus Mari Larrazabalek (guretzako 'Tarzan' zen) ez zuen talde maoistarik atzetik, baina jarraitzaile sutsu asko bai Gipuzkoan barrena barreiatuak, ezker abertzalekoak, noski. Ni ez nintzen aukeratuen zirkulukoak, zumaiar bakan batzuek zuten pribilegio hori, eta ez nintzen inoiz bere gelan izan, baina, Pierre Victor bezalaxe, liburuz mukuru zeuden lau hormen artean irudikatzen nuen, guk irakurri gabe aipatzen genituen liburu guztiak irakurriak baitzituen.

Vincennesen bazegoen halako desgobernu bat, unibertitate frantziar bat aipatzean irudikatzen dugunaren kontrakoa baitzen hura. Michel Foucaultek gidatzen zuen Filosofia eta Psikoanalisi departamentua. François Chateletek ere ikastaroak ematen zituen. Soziologian Gaudemar eta Passeronen klaseetara joaten ginen. Esaten zuten ikastolen historia hobeto ezagutzen zuela Gaudemarrek Ikastolen Federazioko askok baino. Poulantzasen klaseak izan zitezkeen jendetsuenak. Era askotako 'mao'ez gainera, grekoak eta Asia eta Afrikako (bereziki Afrikako) liberazio fronteetako ordezkariak zeuden entzuleen artean eta klase gehienak eztabaida amaiezinekin bukatzen ziren, eztabaida sutsu eta gogorrekin, hain gogorrekin non liberazio fronteetako ordezkari erbesteratuak ez baitziren txorakeriatan ibiltzen. Ikusi nituen behin baino gehiagotan klase barruko eztabaida amaitu gabeak klasea bukatu eta pasilloetan ukabilka erabakitzen. Ez dut esan nahi honekin eguna eztabaidan eta mutur-joka ematen zutenik. Nik Poulantzas miresten banuen, ez zen bere liburuetan erakusten zuen zorrotasunagatik bakarrik, klaseko neskarik ederrenekin ligatzeko zuen adurragatik baizik, edozein asteburutan eskiaztzera joan eta neska-lagun berri batekin itzultzen baitzen.

Michel Lowyk ere, beste bat aipatzearren, jendea biltzen zuen bere klaseetan.

Ez denak, baina programako ikasgai gehienak marxismoaren baitako ñabardurak argitzeko izaten ziren eta lau bat mende lehenagoko tomisten antzera aritzen ginen testu sakratuen exegesia egiten.

Bidenabar gogoratu nahi nuke gerora izen bat lortu zuten irakasle horien artean zegoela Alain Badiou ere, oraindik ere tarteka telebistako kateetako eztabaida saioetan agertzen dena. Behin Joseba Zulaikari esan niolarik, ezer ulertu gabe bada ere, haren klaseetan egondakoa nintzela, begiak izarniatu zitzaizkion. Hainbesteko mirespena zion gizonari, hainbeste alditan aipatzen omen zuen etxean Badiou, non emazteak behin asperturik 'joan hadi nahi baduk Parisera eta ezkon hadi Badiou horrekin' esan omen zion.

Guk Vincenneseko desgobernuari begira egunak ematen genituen bitartean Larrazabal Nanterren ari zen ekonomia ikasten, edo ekonometria, berrira hobeto gelditzen baitzen. Gauetan hotel batean egiten zuen lan eta egunez filosofia eta ekonometriako klase horietara joaten zen. Lo noiz egiten zuen? Erantzuna sinplea zen, ez zuen egiten. Guk asteburuetan ikusten genuen eta ni bere pentsamenduaren abiadurak harritzen ninduen. Beti zegoen azeleratuta, beti zebilen frenorik gabe. Ateratzen zenuen gai bat, aipatzen zenuen zure ustetan zuk bakarrik ezagutzen zenuen norbait eta berak beti zekien zuk baino gehiago. Bazkaldu edo afaldu ondoren kantuan hasten baginen, guk kantaren lehen ahapaldia jakingo genuen, jakitekotan. Berak kanta osoak zekizkien buruz, euskal kantak osorik kantatzen zituen. Tarteka eskema guztiak hausten zizkidan. Behin berarentzako etsaiak edukitzea adiskideak edukitzea bezain garrantzitsua zela esan zidan eta egunak pasatu ni-

tuen inkongruentzia horri bueltak ematen. Nik, alderdikideek Pierre Victorri bezalaxe, mirespen itsua nion, ia-ia orain Becketti edo besteren bati diodanaren parekoa.

Geroztik askotan pentsatu izan dut Parisen pasatu nituen urte horietan marxismoari hainbeste itzulinguru eman beharrean zergatik ez ote nintzen joango tarteka Falstaff garagardotegira, han Becketti begira orduak emateko, han biltzen baitzen bere lagun irlandarrekin. Askotan BBCn lan egiten zuen Barbara Bray kazetaria izaten zuen ondoan, bere maitale edo erdi maitalea bederen. Urte horietan idatzi zuen 'Play' antzezlan, gizonezko baten, emaztearen eta maitalearen arteko triangeluaz. Sartre ere joan ohi zen garagardotegira, ondoan alabatzen adoptatu zuen Arlette Elkaïm maitalea zuela. Beckettetik dio ez zutela elkar agurtzen, buruarekin keinu bat egiten ziotela elkarri, 'agur baserritar' bat. Han ibiltzen zen Godard ere eta tarteka Ionesco bera ere bai. Beckett hamarrak puntuan iristen zen eta whisky irlandarra eskatzen zuen, eskatzen omen zuen. Gauza horiek orain beste modu batera kontatuko nituen, han begira egona izan banintz. Edale lasaia omen zen, patxadatsua, edanagatik hitz bat gehiago egiten ez duten horietakoa. Tarteka mahaitik altxatu eta billarrean partidaren bat jokatuko zuen, joko horrek tarte bat hitzik egin gabe egoteko aukera ematen ziolako.

Beckettetik insomnia zuen, Larrazabalek bezalaxe. Insomnioaren aurka zer erremedio erabiltzen zuen galdegiten ziotenean, golfean jokatzen zuela erantzun ohi zuen, Carrickmineseko golf zelaian zulo batzuk egiten zituela eta, lo hartu gabe jarraitzen bazuen, beste zelai batera joaten zela. Larrazabalek ere insomnia zuen, baina ez zuen golfean jokatzen, logika edo matematikako libururen bat esku artean hartu eta irakurtzen hasiko zen edo euskal kantutegia ikasiko zuen buruz, asteburuan gurekin biltzen zenean kantatu ahal izateko.

Joxean Agirre
(Zarautz; idazlea)

Jesus Mariren ondarea: Gödeli eta Bizitzari buruzko irakaspenak

«Frogatu Gödelen osotasun ezaren lehenbiziko teorema». Horixe zen Logikako nire lehenbiziko azterketako galdera bakarra, Jesus Mari Larrazabal katedradunaren ardurapean. Zorroagako 10. mintegian —UPV/EHUK, behin-behinean, Filosofia Fakultatea kokatzeko erosi zuen monasterio zaharreko gela batean— izan zen azterketa. Uste dut otoitz egin nuela. Bost ikasletik hiruk galdera irakurri, azterketa sinatu, eta alde egin zuten. Nire kide Ketxu Marroquínek eta biok elkarri begiratu genion, eta gelditu egin ginen. Huts egin genuen, noski. Azterketaren ondoren, Jesus Mariri esan nion azterketa zaila iruditu zitzaigula. Erantzun zidan: «bizitza gogorra da, Edu». Bi gauza ikasi nituen: Gödelen teoremaren froga, azterketa berriz egiteko —gainditu nuen—, eta Jesus Mari benetan ari zela. Baita ni ere. Ikasketak bukatu nituenean, Jesus Marik onartu zuen nire doktoretza-tesia, «Logika ez-monoto-noak agente anitzeko sistemetan», zuzentzea. Lehenbiziko astean, IJCAI eta ECAI akta-liburuen 10 ale ekarri zituen bere liburutegitik, ohar batekin: «Fotokopiatu behar duzuna, eta itzuli 17:00etarako, gaur». Uste dut madarikatu egin nuela. Luisjak, Fakultateko fotokopiatzaileak, bai, jakina. Garai hartan, 1993an, Jesus Marik lortu zuen UPV/EHUK onartzea Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutua (ILCLI) sortzea, hondatutako beste eraikin batean kokatuko zena, Villa Asuncionen —behin-behinean, noski—. Beste mezu bat: «Edu, ekarri bihurkin bat bihar. Apalak jarri behar ditugu (berak, Xabier Arrazolak eta hirurok)». Noski, dena ez zen jostatzea. Jesus Marik Filosofian zuen interesa bere jarduera politikoekin, publiko zein akademikoekin, osatzen zen; 90eko Euskal Herri iskanbilatsuan modu desatseginetan nahasten ziren. Dekanoorde eta Unibertsitateko kontseilukide gisa, Fakultatea eta Unibertsitatea bereiz mantentzeko profeta faltsuen kontra egin zuen. Ez zaio inoiz behar bezala aitortu, eta pena da.

City, University of Londoneko Informatika Zientzien Sailaren zuzendari naiz orain, eta, bai, gogorra da. Baina Jesus Marik ondo prestatu ninduen. Horregatik, eta eredu ona eta osoa delako, eskerrak ematen dizkiot.

Disclaimer: azalpen labur honetako akats oro kanpoko faktoreei dagokie.

Eduardo Alonso
(City, University of London)

Larraitz Zubeldiak ingelesetik itzulia

Jesus Mariri diodan enpatia

80ko hamarkadan, ez dugu zertan urtea zehaztu, Jesus Mari Larrazabal Antiak eta biok topo egin genuen Valentziako unibertsitatean, doktorego-tesi baten epaimahaiari. Gogoan dut Logikako tesia zela, nahiko ona, dedukzio naturalaren prozedura informatizatzen saiatzen zena. Logikaren beraren erabakiezintasunak eragozten zuen, hasteko, espazio teoriko neurrigabearen beti emaitzarik lortuko zuen algoritmoren bat lortzea, baina saiakeraren programazioan erakutsitako ahaleginari eta buruargitasunari esker kalifikazio ona jaso zuen. Larrazabalek eta biok ikusten genuen zuhaitz semantikoek, Herbranden teoremaren bidez, primeran betetzen zutela helburu hura, baina ikuspuntu hertsiki teorikotik kasu asko eta asko ebatzezinak zirela gauza agerikoa zela, A. Churchek 1936an hala frogatu zuenetik. Hala eta guztiz ere, Rafael Beneytok (bion lagun maite zenak, eta gure artean horrenbesteko hutsunea utzi duenak), tesi-zuzendari gisara, azpimarratu egin nahi izan zuen doktoregaiaren programazioaren eta bere zuzendaritzapean egindako lan guztiaren zorrotasuna.

Larrazabalek eta biok pentsatzen genuen egindako informatika-lanak distira handiagoa izango zukeela beste problema batzuk ebatzeko erabili izan balitz, baina Rafak ez zuen hala uste izan. Oker ez banago, aldi hartan eza-gutu nuen nik Jesus Mari. Orduz geroztik, gaurdaino, beti eutsi diogu kide-tasun psikologiko estu bati, hark Valentziara egindako bisitei, eta nik Donostiako Logikako Institutura egindako askoz ere bisita ugariagoei esker. Izan dadila horrela beste urte askoan.

Enric Casabán Moya
(Universitat de València)

Joana Garmendiak gaztelaniatik itzulia

Jesus Mari Larrazabalekin topo egitea

Orain dela hogeit hamar urte, Perryrekin batera, bion artean mintegi bat ematera gonbidatu ninduten, ILCLik antolatutako SPR (Semantika, Pragmatika eta Erretorika) kongresu ezagunetako batean. Gogoan dut Castañedaren adierazle/erdi-adierazle bereizketaz eztabaidatu genuela, eta, baita ere, horrek nola osatu zuen Perryk indexikalitatearen (batez ere «ni» lehenengo pertsonako ize-nordainaren) gainean egindako lana. Nire mintegitik eta ekitaldi hartan zehar izan nituen eztabaida aberasgarrietatik abiatuta (ardo ona zurrupaka edanez eta pintxoak janez izan genituen elkarrizketa haietako zenbait) artikulatu batzuk eta liburu bat idatzi nituen, ondoren, ILCLira egin nuen lehen bisitan, lantzen hasi nintzen gai nagusi batzuen inguruan. Une hartantxe topatu nituen lehenbiziko aldiz Jesus Mari Larrazabal eta Kepa Korta, gogo ahaltzudun adin ertaineko gizon bat eta ideia interesgarriak betetako akademiko gaztea. Zorioneko elkartzea izan zen hura. Eragina izan zuen nire ondorengo lan-ibilbidean. Hala, Ikerbasqueri esker, hamar urte geroago (2009an), UPV/EHUko ILCLI institutuko kide egin nintzen. ILCLik, dudarik gabe, asko zor dio Jesus Mariren zorrotasun intelektualari, jakin-minari eta energia amaigabeari. Baita burokrasia korapilatsuari aurre egiteko bere gaitasunari ere, noski —nire moduko hilkor arruntek amore emango genuke—. Jesus Marik filosofiako hainbat gaitarako duen grina gaindiezina da. Arrazoi horiengatik, arlo desberdinetan lanean ari diren, baina diziplinarteko jarrera eta interesa duten, zenbait akademikok osatzen dute Institutuaren oinarria. Beraz, pozik nengoen eta zorioneko nintzen akademikoen talde hain bikaineko kide izateko aukera nuelako. Master-ikasle askorekin eta lankideekin izan nituen eztabaidak, bai eta elkarrekin egindako hainbat jardura, guztiz onuragarriak izan dira. Askok ikasi dut, eta nire onena eman dut zerbait itzultzeko. Estimatu handitan nituen, eta ditut oraindik, Jesus Mariren pentsaera zorrotza eta filosofia, soziologia, historia, eta abarretan duen jakituria. Halako kultura handia banu. Laburtuz, Jesus Mari eta Keparekin topo egin izan ez banu, ez nintzatekeen Euskal Herrira etorriko (Jesus Marik eta Kepak lagundu zidaten hemengo kultura aberatsa ezagutzen eta neureganatzen). Zoritxarrez, ordea, ezin izan dut euskara ikasi. Jesus Mariren kemena eta jakin-min bukaezina izan banitu, baita haren pazientzia pixka bat ere, ziur naiz erraz egingo nukeela euskaraz orain. Hortaz, betiko zorretan egongo naiz Jesus Marirekin, Donostiara etortzeko eta ILCLiko ikerketa-jardueretan parte hartzeko eman zidaten aukerarengatik, baita Euskal Herriaren gauza zoragarri askoz gozatzeko emandako aukerarengatik ere.

Eros Corazza
(ILCLI, UPV/EHU)

Larraitz Zubeldiak ingelesetik itzulia

Ahots deserosoa hainbeste zarataren artean

Erakundeetan sartu eta ateratzeko hainbat era dago. Bada haietara isilean iristen denik, eta alde egin ere halaxe egiten duenik. Era sinpleagoan esanda: inor ez dago inor iritsi zain, eta gutxi atsekabetzen dira erakundetik erretiratu beharraz. Bizilegea da. Jesus Mari isiltasun zaratatsu batekin iritsi zen erakundera, eta zaratazko isiltasun batekin joan da. Kaxa beltzaren *input* eta *output* aukerak dira. Hala ere, kaxa hori gardena da gure lantokiaz hitz egiten dugunean, eta hortxe utzi du, hain zuzen, lekukotza Jesus Marik bere presentziarekin, bere konpromiso politikoarekin, bere euskararen aldeko defentsarekin, bere parte-hartzearekin Euskal Unibertsitatearen garatze instituzionalan. Askorentzat hitz deserosoa izan zen; ez niretzat.

Laurogeiko hamarraldiaren bukaeran aukera izan nuen dekanotza-talde bat berekin partekatzeko. «Normalizatzaile»tzat jo zuten taldea, Unibertsitatearen gainerakoan normalak ziren gauzak Zorroagako gure Fakultatean ere hala izan zitezten ahalegintzeagatik bakarrik. «Zorroaga» marka, fakultatearen zati bati hainbeste onura ekarri zion hura, aspaldi hilda zegoen, edo putreen nahiz hura berpizteko interesa zutenen esku: guk ehorzteko ekarpena besterik ez genuen egin. Kasu honetan, bazirudien Zorroaga bizitza hobera pasatzearen errudunak ehorzleak ginela, eta ez hildakoa. Une hartatik, Zorroaga historiaren parte da jada; alegia, ahanzturaren parte, eta interesa dutenen mitoa eraikitzearen parte. Baina historia hori ez da jada Jesus Marirena, eta beharbada ezta nirea ere, nola eta ez den nire lanbidearen ajearengatik. Ordutik, errespetu handia diot Jesus Mariren isiltasunari, nahiz eta gorabehera zaratatsuek inguratu gaituzten.

Paulí Dávila

(Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea, UPV/EHU)

Larraitz Zubeldiak gaztelaniatik itzulia

Lagun baten gorazarrea

Jesus Mari, ia inoren laguntzarik gabe egin duzu ezagun Euskal Herriko Unibertsitatea logikaren, hizkuntzalaritzaren eta informazio-teoriaren alorretan. Espero dut oso harro egongo zarela eraikitzea lortu duzunaz! Euskal diasporan gaudenok, zalantzarik gabe, harro sentiarazi gaituzu lorpen horiengatik, guk horiek lortzean ardura txikia izan badugu ere. Eskerrik asko zure lanagatik, eta zorionak zure ibilbide bikainagatik.

John Etchemendy
(Stanford)

Joana Garmendiak ingelesetik itzulia

Akademiko eredugarria

1984an egin nuen topo lehenbiziko aldiz Jesus Marirekin. Neguko goiz hotz batean iritsi nintzen Zorroagara; «iparraldeko Atenas» esaten zioten orduan. Eraikinaren atartean sartzean, batzar jendetsu batekin egin nuen topo. Inpaktua oso gogorra izan zen. Trantsizio-garaian unibertsitate guztiek bezala, garai mugituak bizi izan zituen unibertsitate batetik, Salamancakotik, nentorren, baina neurri batean normalduta zegoen hangoa. Zaila da oso giro hura ulertzea, bizi izan ez bada. Inpaktua ez zen txikiagoa izan Logika Saila ezagutzen joan ahala. Garai hasiberriak ziren, eta ia guztia egiteko zegoen. Hori bai, bazen ilusiorik. Baina ez hori baino askoz gehiago, ikuspegi erabat akademikotik behintzat. Saila hango eta hemengo irakasleen laguntzaz baliatuz joan zen osatzen, seguru asko beharrarengatik, eta bakoitzak bere heziketa-ezaguera zuen. Oro har, kaotikotzat joko nukeen itxura zuen. Nik ez nuen norekin hitz egin filosofiaz, frogatu bainuen, halako ezuste batekin, ez genuela irakurketa komunik. Berehala konturatu nintzen bi pertsonarekin molda nintekeela ondo, hala irakurketa komunak genituelako, nola logikako sail batek izan behar zuenari buruzko eta ikasleei eman beharreko heziketa motari buruzko ikusmoldeari dagokionez. Bi lagun horiek ziren Víctor Sánchez de Zavala —erretiroa hartu eta berehala hil zen, zoritxarrez— eta Jesus Mari. Horiez gain, Miguel Sánchez-Mazas —goiz hil zen hura ere—, sailaren zuzendaria. Baina Miguel Genevan bizi zen Donostian baino gehiago; beraz, ezin genuen izan ohiko harremanik. Jesus Mari eta biok segituan etorri ginen bat. Laguntasun- eta akademia-harreman baten hasiera izan zen, eta gaur egun ere badirau.

Bi pertsonaia bizi izan dira Jesus Marirengan: politikoa eta akademikoa. Bi pertsonaia horiek era moralki osoan bete dute euren eginkizuna; garai haueetan ez da batere ohikoa. Barruan eraman duen animalia politikoa (ez da kasualitatez Aristoteles bere heroi filosofiko garrantzitsuenetako bat) era esplizituan agertu da batzuetan; esaterako, diputatu izan denean (irakaskuntza behin ere alde batera utzi gabe), baita bizitza akademikoa ikusteko moduan ere.

Hala ere, bi pertsonaia horien arteko jokoaren alde onak eta txarrak aztertu beharko balira, uste dut, zalantzarik gabe, akademikoak irabaziko lukeela alde handiz. Jesus Mari buru-belarri aritu da unibertsitatean, atsedenk hartu gabe lan eginez unibertsitateko bizitzaren eremu guztietan; unibertsiti-

tateko eremu orokorretik hasi, kudeaketako eta ordezkartzako hainbat postu betez, Logika eta Zientziaren Filosofia Saila eratzeke ahalegina egin, eta irakaskuntzaraino eta ikertzaileak prestatzeraino.

Saileko irakasle euskaldunen maila altua berari zor zaio batez ere. Hori bai, kalitatea lehenetsi izan du beti kantitatearen aurretik. Berak ere, ama-hizkuntza euskara izanik, nahiago izan zuen tituludun izateko, eta ondoren Katedra baterako, profil elebidunik gabe lehiatu, lehia izatera arriskatuz.

Bizitza akademikoa ulertzeko modu horrek nahigabe batzuk ekarri dizkio. Ez dira garai onak Logikarentzat Filosofiako ikasketetan. Unibertsitatean egin dituen azken urteetan, tristura handiz ikusi behar izan du nola jaitsi den eskakizun-maila ikasgai horretan. Tristura-maila ez txikiago batekin, unibertsitateak irizpide neoliberalak jarraituz izan duen eraldatzea bizi izan du, «argitaratu edo hil» jokoan sartzeari uko eginez, pentsamendu sendo eta geldiari esker. Jesus Mari bere ideiekin koherentea izan da erretirora arte.

Atsedetik gabeko bere lana ez da mugatu eskoletara eta doktoretza-tesiak zuzentzera —asko izan dira—, ikerketa babestu eta garatzeko esparru instituzionalak ere sortu ditu. Ahalegin horren emaitza nagusia, nahiz eta ez den bakarra, Logika, Ezagutza, Hizkuntza eta Informaziorako Institutua izan zen. Ni neu zeregin horietako askotan aritu naiz berekin lankidetzan. Baina berak izan du iniziatiba nagusia beti. UPV/EHUK, Logikako Sailak eta ILCLik asko zor diote Jesus Mariri. Zoritxarrez, askotan gertatzen da ahalegin handiak ez direla behar bezala aitortzen. Uste dut kasu argia dela hau. Nik neuk zor handia daukat berarekin.

Esan dut 1984an ezagutu nuela Jesus Mari. Garai hartan nire doktoretza-tesia, ekintzaren teoriari buruzkoa, bukatzen ari nintzen. Urte hartan bertan defendatu nuen tesia Salamancako unibertsitatean. Nire ikergaia, tradizio analitikoaren arloan garatzen zen ekintzaren teoria, mugatzen hasi nintzenez, ezagutzari buruzko azterketetatik dezente aldentzen ziren bideetan nenbilen; ez zeukaten oraindik handik oso gutxira izan zuten arreta orokortua. Berehala ohartu nintzen ezin nuela aurrera egin ikerketan ezagutzaren eremuan sartzen ez banintzen. Jesus Marirekin izaten nituen solasaldietatik ezagutzan zentratutako bilera zientifikoak antolatzeke ideia sortuz joan zen, gaiari buruzko nazioarteko ikerketarekin harremana izateke, harremanak egiteke eta haztegia sortzeke, gure ikasleak arlo horretarantz gidatzeko. Emaitzak luze gabe etorri ziren, *Seminario Interuniversitario de Ciencia Cognitiva* eta *International Colloquium on Cognitive Science (ICCS)* direlakoan antolaketa gisa agertzeke, 1989an. Ekimen horiekin aitzindariak izan ginen unibertsitate espainiarrean. Jesus Mariren bultzadarik gabe, ez zatekeen posible izango. Eskerrik asko, Jesus Mari.

Jesús Ezquerro
(ILCLI, UPV/EHU)

Larraitx Zubeldiak gaztelaniatik itzulia

Genio y figura...

Bere berezitasunarengatik eta denboraren eta egoeren gorabeheren aurrean duen irmotasunarengatik nabarmentzen den izaera eta jokaera bat ezaugarritzen duen esaera da. Eta horixe da, uste orokortuaren arabera, Jesusmariren nortasuna nabarmentzen duen ezaugarria; hainbestearino non, unibertitate honetan, «Larrazabal» abizena (beste irakasle edo administrazioko arduradun batzuekin partekatua bada ere) aipatzen entzutean entzuleak berehala eta beti lotzen du abizen hori hemen eta orain omentzen ari garena-rekin.

Zumaiako seme ikasi hau definitzen duten ezaugarri bereizgarri ugariak arakatzuz, bat azpimarratuko dut: unibertitario egongaitz eta zorrotz gisa, kritika bihurtu zuela bere militantzia. Inoiz ez zuen saihestu polemika; aitzitik, sortu egin nahi izaten zuen, baina onura pertsonalik ekartzen ez zioten auzien alde borrokatuz eta jarrera bikoitzarekin jokatu gabe (errukigabe batzuekin eta bihozbera besteekin); izatekotan ere, gehiago ikusten zitzaion begietan haserre biziaren dirdaia gobernuko postuak zituztenen aurrean, berearekin bat ez zetozenen aurrean baino, nahiz eta —hori bai— beti era zintzoan eta tranparik gabe argudiatu. Laburbilduz, Larrazabalek, ezkonformista izanik, aurrez aurrekoa gustuko duen gizon baten soslaia eskaintzen zuen, iragan hurbilean Pío Barojak, Pablo Sorozabalek, Jorge Oteizak, gure Koldo Mitxelenak edo halako beste gipuzkoar ospetsu batzuek bezala.

Hori ez zen eragozpena distantzia motzean, buruz buru, Jesusmarik bere jendaurreko irudiaren atzealdea erakusteko; alegia, pertsona adiskidetsu, atsegín eta eskuzabalarena.

Hala ere, ezer gutxirako balioko zuen ustelkeriaren, zabarkeriaren eta fribolitateen kontrako Larrazabalen kritizismo metodikoak gero bere jardute akademikoak berak aldarrikatzen zuenaren kontrako norabidea hartu izan balu. Baina ez zen hala izan. Sekula ez zion errespeturik galdu koherentziaren printzipioari. Alderantziz, zintzotasuna, hartutako konpromisoa eta zorrotasuna zituen gidaritzat, Fakultate bateko giro ez oso aldekoan, non bazirudien ahaleginari eta diziplina intelektualari atzerapen eta gogo-hutsaltasunaren usaintxoia zeriela; filosofoaren eredu profesionala —XVIII. mende frantziarreko *les philosophes* eran— (gehienbat saiakeren) «idazle» gisa, eta

ez «ikertzaile» gisa (hondoa jotzerainoko murgiltze neketsuarekin, ahal bada) hedatuta zegoen Fakultate batean; eta non titulazioa finkatu arteko hasierako garai zailetan, nahikoa izan zen irudi hau: irakasle ibiltariak asteroko bisita egiten Zorroagako muinoan.

Gauzen egoera horren kontrapuntu errektibo gisa nabarmentzen zen, beste (egia esan, oso gutxi) batzuen artean, Jesusmari Larrazabal baten irudia, esandakoa betetzeari dagokionez seriotasunaren apaindurekin jantzitako eta edukiari dagokionez zehaztasunez jantzitako irakaskuntza baten aldeko konpromiso isil baina iraunkorrean tematua (ez da beste aukerarik Logikaren irakaskuntza zintzoan). Eta, halaber, ordainetan, ikasleei pareko ahalegina eskatuz, amore eman gabe, eskatutako ezagutza-maila egiaztatzeko. Hori has-teko. Hementxe isilduko naiz.

Edozein moduz ere, hutsalkerien burtsan kotizatzen ez duten akzioak izan dira guztiak.

Juan Igartua
(UPV/EHU)

Larraitz Zubeldiak gaztelaniatik itzulia

Arre eta so

Oi, zer diren zer, performatibitatea eta hizkuntza-ekintzak! Badira hor munduarekin bakezkoak egiten laguntzen dutenak. Horietako bat, noski, barkamena eskatzea izaten da; bestea, berriz, zor zaionari esker ona azaltzea. Eta azken hau da, bada, lerroon asmoa, esker ona agertzea, Jesus Mari Larrazabali.

Eskerrak, arrazoi bat baino gehiagogatik. Lehenengo, duela ia hamabost urte gure gurasoen etxera hots egin zenuen batean, eta telefonoaren beste aldean nirekin tokatu zinelarik, filosofiaren alorreko doktorego-ikastaroetan izen emateko gonbita egiteagatik. Labur bidez: proposamen —animo— hori jaso dudan opari garrantzitsuenen artean dago. Behar nuen unean iritsi zitzaidan, eta onerako baino ez da izan. Bigarrenik, eskerrik asko tesi-zuzendaritzaren lanagatik. Labur bidez, atzera ere: lan ona. Tesi-lana idazten ari nintzela, ozeano Atlantikoa alderik alde zeharkatzekotan den asto ausartaren pare imajinatu izan nuen neure burua maiz. Jesus Mari, gauza segurua da bigarren itoko nintzena behar zen unean botatako *arre* eta *so* horiengatik ez balitz.

Segi pixkor.

Ibai Iztueta

(Lakua)

Zergatik dago ezer?

Chillida Leku museoa. Dena berde, oso berde. Eta eskultura itzelak. Sinboloak balira bezala. Edo beste toki eta garai batzuen geldikinak. Bisitan eraman gintuzten. Ezagutza-zientziei buruzko jardunaldi batzuetan geunden. ILCLik antolaturiko kongresu ugarietako bat. Gure seme Ulisesekin joan ohi ginen. Txikia zen oraindik. Gustuko zuen gurekin bidaiatzea.

Jesus Marik berarekin egin zuen denbora puska bat. Hizketan eta barezka aritu ziren. Belarretan, beraien ondoan, burdin herdoilduzko bolumen arraro bat zetzan. Ni nengoen lekura etorri zen Ulises.

— Eser gaitezen pixka batean. Zatoz. Zer moduz zabilta?

— Oso ondo —erantzun zuen—. Eman ura. Eta kontatu zerbait.

Istorioak entzun nahi zituen beti. Edozeri buruzkoak.

— Zer nahi duzu kontatzea?

— Nahi duzuna —esan zuen—.

— Filosofiako zerbait kontatuko dizut? Ados?

— Bai, ondo. Filosofiako zerbait nahi dut... kontatu berriro gezurtiarena.

Paradoxen zale amorratua zen. Gezurtiarena zuen gogokoenetakoa. Bere lagunei kontatzen zizkien gero. Txistek bezalakoak ziren, edo asmakizun oso berezien antzekoak. Baina aldi hartan beste gai bat bururatu zitzaidan.

— Ez. Nahikoa dugu gezurtiarenarekin. Beste bat. Oso galdera zaila egingo dizut. Egin litekeen galderarik zailena dela diote.

— Galdera bat, konforme. Galdetu —adi-adi zegoelako aurpegia jarri zuen—.

— Begira ezazu zure ingurura. Belar asko dago, eta zuhaitzak, eta eskulturak. Han bada harrizko etxe bat. Baina bazitekeen ezer ez izatea. Ez hemen eta ez inon. Bazitekeen ezer ez existitzea. Bazitekeen Lurra ez existitzea. Ezta Eguzkia ere. Ezta gu ere. Ezta Unibertsoa ere. Pentsa ezazu bazitekeela ezer ez izatea. Orduan, zergatik dago ezer?

— Zer? Ez dut ulertzen —esan zuen—.

— Bai. Ea zergatik dagoen ezer —errepikatu nion—. Baldin bazitekeen ezer ez izatea, zergatik dagoen ezer. Zergatik existitzen da zerbait, ezer ez existitu beharrean?

Isiltasun luzearen ondoren, honela galdetu zuen nire semeak:

— Baina, nola dakizu bazitekeela ezer ez existitzea?

Behin baino gehiagotan aritu nintzen gai honi buruz Ulisesekin. Hitz desberdinekin, baina beti emaitza berarekin. Pentsatu ohi dugu haurrek gisa horretako galderak egiten dizkietela beren buruei. Baina nik beti egiten nuen topo eragozpen berarekin. Eta merezi du aintzat hartzea. Benetan pentsa al dezakegu bazitekeela ezer ez existitzea?

Bai, batzuetan esan izan da galdetzen dugunean zergatik existitzen den zerbait, ezer ez existitu beharrean, geure buruak ipintzen ditugula filosofia-sentiberatasunaren muturreko testaren aurrean. Filosofiaren galderarik garrantzitsuenetariko baten aurrean al gaude, benetan? Hori ote da, agian, egin dezakegun galderarik sakonena? Horixe zioen, aho betean, Heideggerrek. Hori ez da, bistan da, arrazoi erabakigarriegia. Baina Leibnizek ere oso garrantzitsutzat zuen. Eta Wittgensteinek, *Tractatusean*, mistikoaren alor garrantzitsuan kokatzen zuen. Dena dela, horren aurretik beste galdera bat egin beharko genuke: benetan pentsa, imajina edo gogoan har al dezakegu bazitekeela ezer ez existitzea? Pentsa al dezakegu existentzia ez dela existitzen?

Zerbait zergatik existitzen ote den galderak bi eratako erreakzioak sortu ohi ditu. Berehalakoena da nolabaiteko erantzuna taxutzen saiatzeari. Honako etenpuntu hauek era batean edo bestean osatzeko ahalegina litzateke:

«Zerbait existitzen da, ezer ez existitu beharrean, zeren eta...»

Askotariko arrazoiak entzun daitezke. Zenbaitek atomoei buruz, edo zulo beltzei buruz, edo Big-Bangari buruz, edo eremu kuantikoei buruz hitz egingo luke. Bada matematika eta logika aipatuko lituzkeenik ere. Beste zenbaitek Jainkoari buruz hitz egingo lukete. Baina, horrekin guztiarekin, hasierako arazoa atzeratu besterik ez litzateke egingo. Izan ere, zergatik existitu beharko lukete, bada, gauza horiek guztiek? Zergatik existitu beharko luke Jainkoak berak? Lasaibide al da pentsatzea Jainkoak nahitaez existitu behar duela, bera dela nahitaezko izaki bakarra, gainerako guztiari arrazoi emateko gai dena? Zergatik ez logika edo matematika? Ez al dira horien legeak nahitaezkoaren paradigma? Eta atomoak? Jainkoari egotzen zaion nahitaezkotasuna zergatik ezin zaie egotzi atomoei? Hori eginez gero, atomoek jokatuko luketelako Jainkoaren papera? Ezin al liteke esan, era berean, Jainkoarengan islatzen dugula atomoen, materiaren edo gisa horretako beste edozeren nahitaezkotasuna? Goiko etenpuntuak osatzeak hasierako egoeran kokarazten gaitu berriro. Nahitaezko den zerbaitek soilik eskain lezake erantzun onik. Baina ez dago batere argi zer izan litekeen nahitaezko.

Gainera, etenpuntuetan nahitaezko den zerbait ipiniz gero, nola daiteke orduan pentsa, imajina edo gogoan har dezakegula bazitekeela ezer ez existitzea? Zergatik existitzen den zerbait, ezer ez existitu beharrean: horixe galdezen genion geure buruari. Eta ase gintzakeen erantzun bakarrak galdera horixe egin ezinik uzten gaitu.

Gure galderari eman ohi zaion bigarren erantzuna aurreko egoeratik abiatuta uler daiteke. Ez da horren erantzun berehalakoa. Honetan datza: ohartzean beharbada nahitaezko dena ez direla atomoak edo Big-Banga, ezta matematikaren edo logikaren legeak ere, ezta Jainkoa bera ere. Beharbada, nahitaezko dena zera da, gauza bat edo bestea izatea bera. Beharbada, zerbait izatea da nahitaezko dena. Nahitaezko litzatekeena, nolabait esan, zerbaiten existentzia bera litzateke. Eta zerbait existitzea nahitaezko izanik, ezin pentsatu ahal izango dugu serioski ezer ez existitzearen aukeran. Zergatik existitzen den zerbait, ezer ez existitu beharrean, galdetzea, ez litzateke benetan galdera bat. Ez litzateke galdera baten irudipena besterik.

Zerbait izatea nahitaezko bada, orduan galdetzeak zergatik badagoen zerbait, ezer ez izan beharrean, zentzua izateari uzten dio. Beste galdera batzuek hartu beharko lukete horren lekua. Eta galderarik orokorrena zera litzateke, galdetzea zergatik existitzen den existitzen dena, existi zitezkeen beste gauza guztietakoren bat existitu beharrean.

Horri guztiari buruz hizketan ari ginen Ulises eta biok.

— Bai —esan nion azkenean—, arrazoi duzu. Ezin jakin dezaket bazitekeela ezer ez existitzea. Ez da erraza pentsatzea bazitekeela ezer ez existitzea.

Baziren hasierako galdera hura inguratzen zuten beste bitxikeria asko. Ez ditut ondo gogoratzen. Ñabardura pragmatiko garrantzitsu bat aipatu zuen Ulisesek. Edozein modutan saiatzen garela ere erantzuten zergatik existitzen den zerbait, ezer ez existitu beharrean, galderari, erantzun bat saiatzeak jada auresuposatu egiten du badela zerbait. Gutxienik, auresuposatzen du gu geurok bagaudela, geure buruei galdera horixe egiten. Suposizio existentzialik batere erabili gabe ere, erantzuten saiatze hutsak gure erreakzioetatik bigarrenez lerratzen du auzia. Zera iradokitzen du: pragmatikoki, behintzat, nahitaezkotzat jo behar dugula zerbait badela. Zernahi gauza, hori bai. Baliteke gu bakarrik existitzea, galdera egiten ari garenok. Gutako bakoitza, kasuan-kasuan. Baina hori jada bada zerbait.

Bazen berezitasun metafisiko bat ere. Denborak bigarren erreakzioaren mesedetan jokatzen zuen, esaten duena balitekeela nahitaezko izatea zerbait izatea eta, horrexegatik, galderak berak zentzua izateari uzten diola. Jakina, denborari igarotzen uztea bada zerbait. Gisa horretako denboraren existentziak, zerbait gertatu edo ez berdin diolarik, indartu egingo luke nahitaez zerbait existitu behar duelako ideia. Gutxienik, denbora beti existituko litzateke. Baina gertatzen diren gauzek determinatzen duten denborak ere

indartu egingo luke nahitaez zerbaitek existitu behar duelako ideia. Dena denboran gertatzen bada, eta denbora bera gertatzen diren gauzek sortzen badute, literalki ezin existi daiteke ezer gertatzen diren gauza horiez kanpo. Bitxia bada ere, hori balitz denboraren izatasuna, orduan ere ez litzateke posible ezer ez izatea. Izan ere, ezin izango zatekeen denbora bat zeinetan ez den ezer. Ezingo zatekeen ezer existitu izan, existitzen den guztia existitu zen arte; halaber, ezingo litzateke ezer existitu existitzen den guztia existitu eta gero. Ez da horrelako lehenik ez gerorik.

Pragmatikoki, nahitaezkotzat jo behar dugu zerbait izatea. Eta metafisikoki ere, denborari dagokionez behintzat, ezin saihestuzkoa dirudi nahitaez-kotasun horrek. Zerbait izatearen nahitaezkotasunak nahitaezko dirudi denborari gagozkiola. Ohar hauek guztiek berdin balioko lukete espazioarentzat, jakina. Baina gehiago dagozkio denborari, espaziorik existitu gabe ere denbora existi daitekeen neurrian.

Gauzaren bat oro har izatearen nahitaezkotasuna ukatzeko beharrik gabe, edozein gauza jakinen nahitaezkotasuna uka daitekeela alde batera utzita, bazen beste bitxikeria logiko oso interesgarri bat. Oraingoan, logika modalaren alorrari zegokiona. Onargarria da baieztatzea zerbait nahitaezko izatearen posibilitateak berorren nahitaezkotasuna inplikatzeko duela. Posible bada zerbait nahitaezko izatea, orduan nahitaezko izan behar du munduren batean. Baina horrek zera esan nahiko du: mundu jakin horretatik egiazkotzat joko dela mundu guztietan. Eta horretan datza, hain justu, zerbait nahitaezko izatea. Horrela bada, zerbait nahitaezko izatearen posibilitate hutsak inplikaturiko du benetan nahitaezko dela.

Hain zuzen, inplikazio hori maiz erabili da filosofian azkenaldian. San Antselmoren argudio ontologiko klasikoaren bertsio modal asmotsuak eraikitzeke erabili izan da. Jainkoaren existentzia *apriori* frogatzeko, nahikoa litzateke baieztatzea Jainkoa posible dela edo, agian, Jainkoaren ideia ez dela kontraesankorra edo, agian, pentsagarria dela ideia hori. Edozein modutan, aipatu dudako inplikazio modal hori egokia da eskuartean dugun kasuan ere. Eta hala izan behar du, izan ere, argudio ontologikoaren bertsio modal berriek frogatzen dutena zera da, azken finean: posible bada izaki nahitaezko bat existitzea, izaki nahitaezko baten ideia ez bada kontraesankorra, izaki hori pentsagarria bada, eta abar, orduan izaki horrek nahitaez existitu behar du.

Gainerakoak museoaren zelaietan barreiatu ziren. Batzuk etxe nagusian zeuden. Guk ikusia genuen lehenago. Zerua urdin-urdin zegoen. Belarra berde-berde. Eskulturak beti presente.

Gure galdera aldatu behar genuen. Badirudienez nahitaezko dela zerbait izatea, ez du zentzurik galdetzeak zergatik existitzen den zerbait, ezer ez existitu beharrean. Galdetu beharko genukeena zera da, zergatik dauden gauza jakin batzuk eta ez beste batzuk.

— Tira, baina, —esan nuen— dena izan zitekeen izatez denetik oso bestelakoa. Imajina dezakegu eskultura horiek mugitzen hasten direla. Edo adarrak eta sustraiak ateratzen zaizkiela. Pentsa dezakegu hemen ez dagoela zelai bat, baizik eta laku handi bat. Edo, bat-batean, dena *Minecraft*teko mundu bihurtzen dela. Zenbateraino izan daiteke desberdin errealitatea? Zein modutan desberdin?

Galdera aldatzeak bazuen abantailarik. Arazo modaletik kanpo kokatzen gintuen. Eta baita denbora-aukera sinpleetatik kanpo ere. Garrantzia zuena ez zen pentsagarri izatea zerbaiten existentzia nahitaezko izan zitekeela kontraesanik gabe. Eta garrantzia zutenak ez ziren, ezta ere, denboraren eta existentziaren arteko loturak. Orain garrantzia zuena zera zen, benetan existitzen diren gauzez bestelakoak existi zitezkeela.

— Baina badira gertatu ezin diren gauzak —esan zuen Ulisesek—.

— Eta nola jakin dezakegu hori? —galdetu nion nik—.

— Zientziaren bidez —erantzun zuen—.

Ulises zientzirengandik oso hurbil sentitu zen betidanik. Garai batean esaten zuen handitzean zientzialari ero izan nahi zuela. Eta, mantal zuriak gorabehera, ez zuen desberdintasunik batere ikusten zientziaren eta filosofia-ren artean.

— Bai, zientziak esan behar liguke hori —jarraitu nuen nik—. Zientziak argitzen du zer gerta daitekeen eta zer ez.

Nola erabaki gauzak direnetik desberdin, edo are oso desberdin, izan litezkeen edo ez, gauzak nolakoak diren eta nolakoak izan daitezkeenari buruzko gure ikuspuntu edo ikuspegiak baliatu gabe? Gure hasierako galdera iraultzeak gure ikuspuntuei ematen die hitza. Galdera berriari (alegia, gauzak benetan direnaz bestelakoak izan ote daitezkeelakoari) emandako edozein erantzunek nahitaez izan behar du ikuspuntu jakin batetik abiatutako erantzuna.

Badena sailkatu egiten dugu. Gauza klaseak sortzen ditugu. Eta klaseen klaseak. Azkeneko kategoriak formulatzen ditugu. Eta, benetan diren gauzen orde zera gauza izan zitezkeen galdetzen dugunean, garrantzia duena ez da hemen dagoen aulki horren orde beste aulki hura egotea, edo liburu batean huts bat gehiago edo gutxiago egotea, edo ile bat gehiago edo gutxiago geure buruetan. Garrantzia duten gauzak gisa honetakoak dira: ezinezko izan ote zitekeen bizitza Unibertsoan, makina batek gogoa izan ote dezakeen, zenbakiak edo proposizioak benetan existitzen ote diren, objektuak eta propietateak benetan existitzen ote diren, eta abar.

Gainera, zerbait nahitaez existitzen dela onartzea askoz ere errazagoa da baldin eta existentzia hori era jakin batean ulertzen bada, eta ez beste era batzuetan. Alderdi berri hau gehitu behar zaio aurrekoari.

Orduan, bada, zein modutan gertatuko litzaiguke errazagoa onartzea nahitaez existitu behar duela zerbaitek? Eta zein gauza klase oso orokorrek izango dute beste batzuek baino existentzia garrantzitsuagoa, horrela, beste horien existentzia aukera huts gisa alde batera utzi ahal izateko?

— Gogoratu ikusi genuen pelikula hura —esan nion—. *The Hitchhiker's Guide to the Galaxy* nobelan oinarritua zegoen. Izaki hiper-adimendun eta pan-dimentsional batzuek super-konputagailu bat eraiki dute, berariaz diseinatua dagoena galdera honi erantzun zuzena emateko: zergatik badagoen ezer, ezer ez izan beharrean. Super-konputagailuak *Deep Thought* izena du. Konputazioa egiteko, zazpi milioi eta erdi urte behar izan dira. Azkenean, *Deep Thought* erantzun bat eman du: 42.

— Bai, gogoan dut —esan zuen Ulisesek—. Asko gustatu zitzaigun filma.

— 42 esatea erantzun kaskarra, irrigarria, da —erantsi nuen—. Behar-bada, zerbait oso sakona esan nahiko du. Baina ez dut uste. Eta ez dirudi, ezta ere, erantzun ona izan daitekeenik gure galderarentzat, alegia zergatik den badena, eta ez izan zitezkeen beste gauza guztiak.

— Bai, ergelkeria hutsa da. Ordenagailua zoratu egin zen —esan zuen Ulisesek—.

42 edo gisako zerbait esatea ezin izan daiteke erantzun ona gure galderarentzat. Bereziki, ezin izan daiteke erantzun ona zergatik existitzen den existitzen dena, eta ez beste gauza batzuk, galderarentzat. Baina ezta dena materia-atomo txikiz egina dagoela ere, edo jatorrizko ur batez, edo dena zulo beltz batetik datorrela, edo Big-Bangetik, edo halako eremu kuantiko batzuetatik, eta abar. Zergatik behar lukete existentzia garrantzitsuagoa eremu kuantikoek, materia zati minimo batzuek baino, edo gauza horietakoren guztietakoren batek, jatorrizko uren batek baino? Baztergarriak al dira aukera horiek, zergatik eta gaur egun ditugun teoriak era jakin batekoak direlako soilik?

Zera genion, gauzak zein desberdin izan zitezkeenari buruz egiten ditugun ebaluazioek hartzen ditugun ikuspuntuaren arabera izan behar dutela. Eta, hala ere, nahiago genuke ez bageunde gertaerei buruzko gure eza-gutzari horren estuki lotuak gauzak direnetik oso bestelakoak izan daitezkeen edo ez ebaluatzerakoan. Nahiago genuke garaiko zientziari horren estuki lotuak ez bageunde.

Fisikaren legeak diruditen bezalakoak izateak ez digu eskaintzen nahikoa baliabide ebaluatzeko bestelako legeak existi ote zitezkeen, eta are gutxiago zenbateraino izan zitezkeen badiren legeetatik bestelako. Ezin ebalua dezakegu hori beste gauza asko emantzat jo gabe. Esate baterako, gure matematika eta gure logika. Iritsi al gara orain ikuspuntu nahikoa orokorrera, gauzak zenbateraino izan daitezkeen desberdin ebaluatzeko? Ezta ere. Interpretazio ontologiko oso desberdinetan barrena euts diezaiekegu egia matematiko

eta logikoei. Batzuetan, egia da, ontologiaz aldatzeak aldaketak ekartzen ditu matematiketan eta logikan. Baina, beste askotan, ez.

Ba al da kategoria ontologikorik, zeinetatik erraza den onartzea nahitaez existitu behar duela zerbaitek eta, halaber, horrela begiratuta, existitzen denak baduela existentzia garrantzitsuagoa, beste edozein modutan begiratuta izan zitekeen existentziak baino?

Zientziaz eta unibertsoaz luze hitz egin ondoren, gure elkarrizketa zehaztu egin zen.

— Ahaztu atomoak eta zulo beltzak —esan nion—. Ahaztu ura eta gainerako elementuak. Ahaztu Big-Banga eta eremu kuantikoak. Zein da zientziaren abiapuntua?

— Ez dizut ezer ulertzen —erantzun zuen, bizkor, Ulisesek—. Ezertxo ere ez.

— Zerbait esan ahal izateko —jarraitu nuen—, edozer gauza dela ere, zerbait gertatzea behar du zientziak. Aztertuko du gero. Egingo ditu teoriak eta esperimentuak. Baina zerbaitek gertatu behar du, edozerk.

— Nola? —esan zuen berak—.

— Bai —saiatu nintzen azaltzen—, gertatu behar duena zera da, zerbait gertatzea. Gertatu den zerbait egotea. Hori da existitu behar duena. Falta ezin dena.

Berriro ere, segundo batzuk pasatu ziren. Isilune luzea. Gero, hizketan jarraitu nuen.

— Zerbait gertatzean datza existentzia. Hori da nahitaezko dena. Eta ezer ez gertatzea da ezinezko dena. Zientziak gauza asko esan dezake gertatzen denari buruz. Baina, zientziak esaten duena gorabehera, zerbaitek gertatu behar du. Eta hori filosofiak esaten du.

— Filosofia, filosofia. Beti filosofia! —hori zen bere modua adierazteko ez zegoela oso konbentzituta—.

Pentsa dezagun «zerbait gertatzea»n datzan kategorian. Pareko lirateke «zerbait jazotzea», edo «zerbait agitzea» edo «zerbait pasatzea». Ingelesez, *happening* adierazpena erabil genezake. Gertaerak edo jazoerak *happening* mota bat lirateke. Prozesuak lirateke beste mota bat. Iraupen eta joera jakineko *happening*ak lirateke prozesuak. Baliabide-eskuzabaltasun handiarekin deskribatu ditugu. Hala eta guztiz ere, prozesu baten egiturak gertaera bate-nak baino askozaz ere profil zehatzagoa izan ohi du.

Erraza da onartzea nahitaezkoa dela zerbait existitzea, baldin eta existitzen dena gertatzen den zerbaiten gisan pentsatzen badugu. Gure ikuspuntutik, beti gertatu behar du zerbaitek. Eta gerta daitezkeen gauza guztien arte-

tik bat bera ere ez gertatzea erraz har daiteke gertatu den zerbaiten gisan. Zer egin ez dakigunean arratsaldea zein luze igarotzen den bezalaxe, berdin-berdin. Ezer ez gertatzea izan daiteke zerbait gertatzea, ezer ez egitea zerbait egitea izan daitekeen era berean. Eta, zentzu horretan, nahitaez existitu behar du zerbaitek.

Gure bigarren galderari buruz, zer? Gertatzen den zerbaiten existentzia, zerbait gertatzearen existentzia, garrantzitsuagoa al da ontologikoki aulki jakin baten, errata jakin baten, ile jakin baten existentzia baino? Atomoen edo eremu kuantikoen existentzia baino existentzia mota garrantzitsuagoa al da? Big-Bang baten existentzia baino garrantzitsuagoa? Izan al liteke are Jainkoaren existentzia bera baino garrantzitsuagoa? Hori al da goreneko kategoria ontologikoa? Hori al da gainerako guztia barnean har dezakeen kategoria?

Existi zitezkeen propietate jakin batzuen adibide huts diren objektuak soilik. Izan zitezkeen substantzia kopuru jakin bat. Edo substantzia bakar bat. Existi zitezkeen soil-soilik entitate abstraktuak, egitura matematikoak eta logikoak. Existi zitezkeen soilik unibertsalak, orokortasun maila handiagodun edo txikiagodun propietateak. Bazitekeen denbora, espazioa, aldaketa, gauza zehatz eta bereziak, identitate pertsonalak, eta abar irudipen huts izatea. Tira, izan zitezkeen hala. Baina bada desberdintasun erabakigarri bat. Oso zaila da, agian ezinezkoa, irudipen horien guztien existentzia justifikatzea, modu sinesgarrian azaltzea, baldin eta abiatzen bagara objektu eta propietateetatik, substantzietatik edo substantzia bakar batetik, entitate abstraktuetatik, logikatik eta matematiketatik, eta abarretatik; aitzitik, nahiko modu dotorean azal ditzakegu irudipen horiek guztiak baldin eta abiatzen bagara zerbait gertatzen delako nozio oinarritzotik.

Beste inolako kategoriak ez du zerbait gertatzen dela esatea ahalbidetzen digun kategoriak baino azalpen-ahalmen handiagorik. Gainerako errealitate guztiek dute lekua horren barnean. Eta, batez ere, irudipen guztiek dute lekua.

Ez dugu zertan azaldu zerbait gertatzen denik ere, baldin eta objektu, substantzia edo banako batzuek zenbait propietate izateari uzten badiote, beste batzuk izateko. Gure deskribapenetan, aditzak izango dira garrantzitsu. Horien forma inpertsonalean. Gainerako guztia deskriba daiteke aditzen erabilera inpertsonal horien adberbio-aldaketen bidez. Eta gainerako guztiak gainerako guztia barne hartzen du: objektuak eta propietateak, unibertsala eta abstraktua, matematikak eta logika.

Fantasia filosofiko honek zentzurik badu, «zerbait gertatzea»n datzan kategoria kategoria nagusi bihurtuko litzateke. Zergatik existitzen den existitzen dena, eta ez existi zitezkeenetatik beste edozein, ulertzeko orduan garrantzi gehien duen kategoria ontologikoa bihurtuko litzateke. Zerbait gertatzean letzake existitzea. Hori luke garrantzi handiena duen alderdia; agian, benetan garrantzitsua duen alderdi bakarra.

Eta izan dezake zentzurik fantasia horrek. Zerbait izatea nahitaezkoa izango da, esana dugun moduan. Baina, orain, zerbait hori gertatzen diren gauzetan letzake. Gauzak, ez propietateak dituzten eta propietateak izateari uzten dioten objektu azkenak existitzearen zentzuan. Izango dira gauza batzuk gertatzen direnak zentzu tolesgabe batean, zerbait gertatu dela diogun gisan, eta beste gauza batzuk ere gertatzen direla, eta batzuetan badirudiela gertatu zen zerbait errepikatu egin dela, eta abar. Gainerako guztia oso kontingentea izango da. Beharbada, gertatzen diren gauzetatik zenbaitek profil zehatzeko prozesuak eratuko dituzte. Eta, beharbada, prozesu horiek determinatuko dituzte, noizean behin, objektuen eta propietateen existentzia, unibertsalarena eta abstraktuarena, matematikena eta logikarena. Beharbada, hori ez da beti horrela izango. Beharbada, hori ez zen beti horrela izango, eta ez da beti horrela izango. Baina beti gertatuko da zerbait.

Azkenean, ez zen ipuinik izan. Edo beharbada bai? Berdin zion. Gustuko genuen horretaz guztiaz hitz egitea.

— Amatxo deika daukagu. Joan egin behar dugu —esan zuen Ulisesek—.

Manuel Liz
(Universidad de La Laguna)

Joana Garmendiak gaztelaniatik itzulia

Osasuna, Larra, eta eskerrik asko!

Batzuetan, lagun baten izena zure belarrietaraino iristen da norbaitek aurkeztu baino lehen. Eta horixe gertatu zitzaidan Jesus Marirekin, «Larra»rekin, Antropologiako eskolak emanez lanean hasi eta zerbait geroago, niretzat ezezaguna zen leku batean: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultate ohiak Zorroagan zuen hartan.

Larrari buruz hitz egin zidatenak ikasle ohiak ziren. Hala esaten zioten euren Logikako irakasleari, baina baita militante politiko abertzaleari ere, zeinarekin eztabaidak eta borrokak partekatu zituzten, hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran eta laurogeikoaren hasieran, ezker abertzalearen espektrokoa zen taldeetako batean. Hari buruz hitz egin zidatenek azpimarratzen zuten, barre artean, haren desegokitasun egokia. Hala akademia munduan nola politikarenean, konplexurik gabe, erabiltzen zuen desegokitasun egokia, jarrera askotan minoritario eta gutxituen alde egiteko beldurrik gabe. Noizbait aurkeztu zidatenean, kez betetako korridore izoztu baten erdian (bai, garai hartan erre egiten zen), eskola artean, bere mugimendu etengabeak, hizketarako zuen abiadurak, alerik ere (izan unibertsitatekoa, politikoa edo beste bat) tente ez uzteko zuen erak irribarre eta barre eginarazi zidaten, eta bizi-jarrera intelektual lehegarri batekin ongi etorrarazi ninduten —zeina, urte haietan eta are gehiago orain, urria den Akademian eta handik kanpora—. Urteetan zehar eutsi dio jarrera horri, eroso kokatu gabe, isildu gabe, bere ekarpen kritikoak adieraziz beti (eta, garbi dago, gutxitan denen gustura) beste era batekoa izan zitekeela eta izan, eta funtzionatu, behar zuela amesten zuen erakunde bati, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari. Partekatu nuen ametsa, beste Fakultate batean, Arte Ederretan, irakasle nintzela jada. Horregatik, eskatu zidanean, ez nuen zantzarik egin errektore-abentura batean sartzeko talde bateko kide gisa, Barandiarán buru zuen hartan, Barberárekin lehian boto gutxi batzuegatik galdu zuen hartan.

Orain dela hilabete batzuk, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia (eta faktoreen hurrenkerak, igarotzen diren garaien seinale, produktuari eragiten dio) izena jarri dioten Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko korridoreetako gure ustekabeko elkartzeetako batean, erretiroa hartzera zihoala esan

zidan, nazkatuta zegoela, ezin zitekeela izan. Eta hori esan zidan gaztelu kaf-
kiarrean —halakoxea bihurtu da Euskal Unibertsitate Publikoa— legea ezar-
tzen dutela dioten kudeatzaile, akademiko?, burokrata? horietakoren bati bi-
dali behar zion enegarren idazkia erakusten zidan bitartean. Larra: eskerrik
asko ahaleaginean amore ez emateagatik.

Lourdes Méndez
(UPV/EHU)

Larraitz Zubeldiak gaztelaniatik itzulia

Eskerrik asko, Jesus Mari!

Filosofiaren eta logikaren munduak ikaragarri zor dio Jesus Mari Larrazabali, ez ikergai horiei egindako ekarpen ugariengatik bakarrik, baita ILCLI sortzeagatik ere, gai horiei emana den ikerketa-zentro bizi eta emankorra, Euskal Herriko Unibertsitatean. Baina guk, Stanforden eta CSLIn, zor berezia dugu harekin —batez ere nik—.

1990 inguruan, Jesus Marik eta nire kide John Etchemendyk kongresu batean ezagutu zuten elkar, Europan. Jesus Marik ondorioztatu zuen, zuzen, «Etchemendy» abizenetik, Johnek euskal jatorria zuela, eta bazitekeela interesatuta egotea jakitean Euskal Herriko Unibertsitateak programa bizia zuela hizkuntzaren filosofian eta logikan. Etchemendy oso pozik jarri zen haren berri izatean, eta sortua zuten ikerketa-institutua, ILCLI, bisitatu zuen handik gutxira. Hurrengo bisitan harekin joan nintzen, ILCLIk antolatutako kongresu bikain ugari horietako batera. Bizitza aldatzen duen gertaera horietakoa izan zen. Kepa Korta ezagutu nuen, garai hartan doktorego-ikaslea zena, geroago nire mentorea gai pragmatiko guztietan eta kolaboratzailea liburu batean eta hainbat artikulutan. Geroago María de Ponte batu zitzaion, nolako beste mentore eta kolaboratzailea. Geroztik askotan bisitatu dut ILCLI, kongresuetarako, Keparekin elkartzeko, Donostia hiri zoragarriaz gozatzeko, eta Jesus Marirekin hitz egiteko.

Baina Kepa eta ILCLIko beste batzuk CSLI bisitatzen hasi ziren, eta bisita horiek eragin handia izan dute gure zentroan. Kepak, Joana Garmendiak, Josu Acostak eta María de Pontek bisita luzeak egin dituzte, bisita emankorrrak oso niretzat, eta uste dut eurentzat ere baietz. Gero Eros Corazza, CSLIn doktorego ondoko ikertzaile gisa aritu zena urte batzuk lehenago, ILCLIra batu zen, eta gure loturak gehiago estutu ziren. Jesus Marik, beraz, sekulako eragina izan du CSLIn, eta neuregan, eta izugarri eskertuta nago horregatik.

Pertsona gisa xarmagarria da Jesus Mari. Filosofiaren musak —egongo baita zalantzarik gabe filosofiaren musa bat, munduan zeharreko gure komunitatea lotzeko— erabat motibatutako pertsona gisa nabarmentzeko adina idiosinkraticoa da. Hunkituta nago aukera dudalako onena opa izateko bere erretiroan, eta eskerrak emateko gure ikergaiari eta neuri egindako ekarpen ugariengatik.

John Perry
(Stanford University)

Larraitz Zubeldiak ingelesetik itzulia

Bere 70. urtebetetzea dela eta

Pozez eskaintzen dizkiot nire zorionik zintzoenak Jesus Mariri bere 70. urtebetetzea dela eta. Eskertuta nago, baita ere, nire esker ona adierazteko aukera dudalako erruz eman zizkidan adiskidetasun eta laguntza atsegienengatik, Euskal Herriko Unibertsitateko Logika eta Zientziaren Filosofia Saillean kide gonbidatua nintzela. Ia bi urte ez-jarraituen aldia izan zen: 1995-96 ikasturtean hasi, *Fulbright Research Scholar* eta *ILCLI Fellow* nintzela, eta handik aurrera aldizkako hitzorduetan *Visiting Scholar* eta *ILCLI Fellow* gisa, 2002 arte.

Bere xarmarekin, umorearekin eta azterketa filosofikorako konpromisoarekin, Jesus Mariren ibilbideak hobetu egin zituen UPV/EHUko Logika eta Zientziaren Filosofia Saila, haren fakultatea eta Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutua (ILCLI). Harro nago bere kide izateaz eta atseginez opa diot 70. urtebetetze zoriontsua eta etorriko diren beste urtebetetze zoriontsu askoz gehiago izan ditzala.

Stuart Silvers
(Clemson University)

Larraitz Zubeldiak ingelesetik itzulia

Zorionak, Jesus Mari, eta eskerrik asko

Lagun baten osaba zen niretzat Jesus Mari; «Tarzan» esaten omen zioten. Aditzera hura besterik ez nuen ILCLik eta Egunkariak elkarlanean antolatutako masterrean irakasle izan genuen arte. Gauza batek eman zidan atentzioa hasieratik: gaitik joan eta etorri, berriz joan eta etorri, berriro joan eta etorri... eta nola etortzen zen atzera bueltan, haria galduko zuelakoan gu, baina batere galdu gabe. Zerbaitegatik genuen erretorikako irakasle. Gero konturatu nintzen, ILCLIn bekadun hasi nintzenean, bere ezaugarri ugarietako bat zela hura, eta hizketan ez ezik beste gauza batzuetan ere bazuela gaitasun miresgarri hura: nola topatzen zuen, gero, une bakoitzean une horretan behar zuen oharrez betetako paper puska! Non, eta liburu pilaren eta beste hainbat paperen artean. Nola, eta begiratu hutsarekin ia. Dokumentu eta karpetak azken muturreraino ordenatu behar izaten ditugunontzat, sinesgaitza.

Hizlari ona. Eta egiten duen horretan uste osoa duen pertsona. «Egin egingo dugu» esan, eta ahaleginak eta bi egiten dituen hori bururaino eramateko. Ez dakit badagoen guztia era sakonagoan bizitzerik, eta guztia begi zorrotzagoekin ikusterik. Nolako akuilu-lana egin duen institutuan izan dugun bekadun-ikertzaile ibilbidean. Hori bai, beti non sartzera gindoazen eta non genbiltzan ohartaraziz, unibertsitateko argi-ilunak agerian utziz, lan-baldintza makurrez ohartaraziz... zorrotz eta garbi.

Haserre zegoen aspaldian unibertsitateak zeraman martxarekin, eta arantzaz hori, edo hori baino gehiago, barruan daramalakoan nago. Nolanahi ere, horrek ez dio kendu argi ikusten duen haren alde egiteko grina. Halaxe jarraitzen du erretiroa hartu eta gero ere: beti bezain borrokalari, oker ikusten duen hura behatzez seinalatuz, injustizien aurrean ahotsa altxatuz, une oro argudio zorrotza erabiliz, hitz eta keinu argiz eta betez, haur txikienak ere adi-adi begira edukitzeko artez.

Azkenaldian ozta-ozta ikus genezakeen bulegoko mahaiaren gaineko liburu eta paper pilen atzean. Argitasun handixeagoa sartzten da orain leihotxikitik, baina nolako hutsunea dagoen. Eta ez preseski eramandako liburu, kaxa eta paper guztiengatik bakarrik. Hutsunea unibertsitateko garai bateko

gorabeheren berri izateko, hutsunea bizitzako kontuak entzuteko, hutsunea Santa Ageda bezperan koplakantari aritzeko...

Lasaitasuna eta osasuna opa dizkiot bizitzaldi berrian. Eskerrik asko, Jesus Mari, urte hauetan zehar *neska motzei* emandako guztiagatik.

Larraitz Zubeldia

(ILCLI eta Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saila, UPV/EHU)